

## **INTERES ADIERAZPENA IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZAN IZAPIDETZEKO JARRAIBIDEAK**

Interes adierazpena [igz.deialdiak@ehu.eus](mailto:igz.deialdiak@ehu.eus) helbidera bidali behar da, **2022ko martxoaren 21aren 23:59ak baino lehen**, eta gaian hau adierazi behar da: *“Investigo deialdia”*. UPV/EHUren Gerentziak ez du egun eta ordu horretatik aurrera jasotako interes adierazpenik ebaluatuko.

**«Interes adierazpena» PDF formatuan (sinatuta) eta Word formatuan (sinadurarik gabe) bidali beharko da, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren datu basean sartzea errazago izan dadin.**

Barne izapide hori hautagaiek eskaerak aurkeztetik aparte egongo da. Hautagaiek baldintza hauek bete behar dituzte kontratuaren hasieran:

- a) 16 urte baino gehiago eta 30 baino gutxiago izatea.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea.
- c) Langabezian egotea eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan lan eskatzaile gisa izena emanda egotea.
- d) Egingo den kontratu modalitaterako eskatutako baldintzak betetzea eta ekimen bakoitzaren inguruabar zehatzetara egokitzea, indarrean dagoen legeriarekin bat.
- e) Ikerketa proiektuak egiteko gaitasuna izatea eta horretarako, ikertzailea, teknologoa, teknikaria eta I+G+Bko beste profil profesional batekoa izatea.
- f) Aurre-aurreko sei hilabeteko epean erakunde berean edozein ikertzaile postu eduki ez izana.